

**EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA**

Nekazaritzako, Arrantzako
eta Elikagai Politikako
Sailburuordezta
elikagaien Kalitate eta
Industriako Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO
AMBIENTE**

Viceconsejería de Agricultura,
Pesca y Política Alimentaria
Dirección de Calidad e Industrias
Alimentarias



Europar Batasunak
kofinantzatua

Nekazariak kalitate-araubideetan parte hartzeko laguntzak (7131-PEPAC 2023-2027 esku-hartzea)

Aurten, NP Bren Plan Estrategiko berria abiarazi da, zeinak eutsi egiten baitie aurreko aldian Europako kalitate-araubideetarako emandako dirulaguntzei (LGP 2015-2022). Hala ere, aldaketa batzuk egin ditugu aurreko deialdiekin alderatuta:

Aldaketa finantzaketa-ehunekoetan (LGNEF/Eusko Jaurlaritza)

- Europar Batasunaren (LGENF) finantzaketa-ehunekoak behera egin du, % 53tik % 43ra. Zati hori Eusko Jaurlaritzaren berezko funtsekin konpentsatzen da.

Onuradunentzako baldintza orokorrak

- **Oraingoan sartu ditugu** aurreko aldian baino baldintza gehiago, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko araudiarekin lotuta daudenak.
- Ondasun-erkidegoen kasuan, erkidegoa osatzen duten pertsonak identifikatzea eta partaidetza-ehunekoa adieraztea eskatzen dugu. Informazio hori dirulaguntzen ebazpenean ere jasoko dugu.
- Orain arte, ekoizpen ekologikoan parte hartzeaz gain, beste kalitate-araubideren batean izena emanda zeuden pertsonak bi eskaera egin behar zituzten (bat ekologikorako eta bestea JDB/AGBrako). Orain, espediente berean bietarako eska daiteke dirulaguntza, baina gogoratu behar duzue espediente berean erregistratu behar direla bi kalitate-erregimenen informazioa eta ziurtagiriak. Halere, ez dago arazorik lehen bezala egiteko, hau da, bi eskabideak banan-banan egiteko.
- Enplegatuak dituzten enpresek ordainsari-erregistro bat izan beharko dute, 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera.
- 50 langile baino gehiago dituzten enpresek berdintasun-plan bat izan beharko dute.

**EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA**

Nekazaritzako, Arrantzako
eta Elikagai Politikako
Sailburuordezta
elikagaien Kalitate eta
Industriako Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO
AMBIENTE**

Viceconsejería de Agricultura,
Pesca y Política Alimentaria
Dirección de Calidad e Industrias
Alimentarias



Europar Batasunak
kofinantzatua

- Pertsona juridikoek, sozietate zibilek eta ondasun-erkidegoek datu batzuk eman beharko dituzte Emakume Nekazarien Estatutua betetzeko. Horretarako, laguntzak arautzen dituen aginduaren III. eranskina bete beharko dute.

Betekizun espezifikoak

- Epealdi berri bat denez (PEPAC 2023-2027), laguntza honetan parte hartu ahal izango dute 2022ko martxoaren 20aren eta 2023ko uztailaren 7aren artean diruz lagun daitezkeen kalitate-araubideren batean izena eman duten pertsona guztiek. 2019., 2020., 2021. eta 2022. urteetan erregimen hautagarrietan izena eman zutenak ere izan daitezke onuradunak, baldin eta gutxienez urte horietakoren batean dirulaguntzak jaso bazituzten.
- Dirulaguntza eskatzen duten pertsona fisikoak, aldi berean, sozietate zibil batekoak edo pertsona juridikoaren beste edozein figurakoak badira, ezin izango dira laguntzen onuradun izan bi bide horietatik.
- Eskaera guztiei erantzuteko dirurik ez badago, lehentasun-irizpide batzuk erabiliko ditugu. Irizpide horiek aldatu egin dira aurreko aldiarekin alderatuta.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko

- Ekoizpen-unitate bakoitzari lotutako zenbatekoak aldatu ditugu. Zenbateko horiek laguntza kalkulatzeko erabiltzen dira, eta ziurtapen-kostuetatik lortzen dira.
- Eskatzaile bakoitzeko gehieneko laguntza 3.000 eurotik 3.500 eurora igaroko da.
- Esku-hartze honetan aurreikusitako primak % 15 handituko dira emakumeen edo emakumeak dituzten pertsona juridikoen eskabideetan, baldin eta pertsona juridiko horien emakumeen partaidetza-ehunekoa gutxienez % 50ekoa bada, elkartutakoak bi pertsona fisiko izanez gero, edo % 40koa, elkartutakoak hiru pertsona fisiko edo gehiago izanez gero, betiere eskatzaile bakoitzeko 3.500 euroko gehieneko zenbatekoa gainditu gabe.
- Baldintzak bete arren, dirulaguntza kalkulatzeko gutxienez 400 eurora iristen ez direnek ez dute laguntzarik jasoko.